



www.lab.eus



Euskal eskola
publiko-komunitarioa
IRUTEN



Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako LABeko ordezkariak Greba amaierako akordioa betetzea eskatu diote Kristau Eskola eta Aice-Izea Patronalei

Elkarretaratzea egin dute gaur Donostian Kristau Eskolaren aurrean

14 greba egun egin ondoren, aurreko otsailaren 5ean Greba amaierako akordioa sinatu zuten Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako Patronalek eta ordezkariak duten sindikatu guztiek. Akordioa sinatu zen momentutik indarrean sartu zen eta langileek zintzo-zintzo akordioa hurrengo egunetik bete zuten, beraien lanpostuetara bueltatu.

Hiru hilabete pasa ondoren, Kristau Eskola eta Aice-Izea patronalek ez dira ari akordioa betetzen eta hori gutxi ez eta erresistentziak jartzen ari dira hitzarmen berrian aurrerapausuak emateko.

Adostutako 7 mahai negoziatzailetatik, patronalek, 2 mahai bertan behera utzi dituzte azken momentuan, honek dakarren atzerapena gaiak lantzerako garaian nabaria delarik. Hurrengo mahaia, maiatzaren 29an izango dela espero da.

Hori dela eta, LAB sindikatuko ordezkariak hurrengo eskatzen diete Patronalei:

- Adostutako igoerak jasotzen dituzten soldata taulak behin betiko gisa onar ditzatela eta greba amaierako akordioa adostutako baldintzetan aplikatzea
- 2024. urterako adostutako ordainsarien igoerak langile guztien nominetan aplikatzen hasteko data bat finkatzea.
- Kategoria ezberdinentzako adostutako lanaldi murrizketak eta Lanbide Heziketako jardunaldi irregularraren konpentsazioa 2023-2024 ikasturtean aplikatzen hastea.
- Birkokapen prozesua Lan Hitzarmenean txertatzea eta ahalik eta arinen martxan jartzea greba amaierako akordioan jasota dagoen bezala, hau da, kalte ordainak eta aintzinasuna aitortzeko araubide berria bermatuz.
- Maiatzak 29ko mahaian, Lan Hitzarmen berriaren artikulatu osoa aurkeztea, akordioan jasotako edukia txertatuta.

LAB Sindikatuak, egondako negoziazio guztietan, Gizarte Ekimeneko langile guztien soldadak, langile publikoen soldatekin ekiparatzearen alde egin du eta helburu horrekin jarraituko du. Izan ere, argi geratu da greba amaierako soldata igoera finantzazio publikoari guztiz lotua dagoela eta ekiparazioa langileen borrokaren ondorioz lortu zezaketen neurria izan zela. Halaber, LAB jakitun da gobernu berria osatu gabe dagoela, eta egoera horrek, greba amaierako akordioak behar duen finantzazio publikoa lortzea zailtzen duela.

Hurrengo maiatzaren 29an burutuko den mahai negoziatzaileira eskatutako edukia ekarri ezean, mobilizazioekin jarraitu eta bide juridikoari bide emango zaio.

Amaitzeko, hurrengo Maiatzaren 22an, LABeko afiliatu eta ordezkariak beste sindikatuekin batera, ikastetxe guztietan mobilizazioak egitera gonbidatzen zaituztete.

Euskal Herrian 2024ko maiatzaren 16an

ARABA
Fermin Lasuen, 13 behea,
01001 Gasteiz
945 255 877

BIZKAIA
Rekalde zumarkalea, 62
behea, 48010 Bilbo
944 706 900

GIPUZKOA
San Bladi, 1 behea,
20013 Donostia
943 224 400

IPAR EUSKAL HERRIA
10 Santa Ursula Plaza,
64100 Baiona
0559 595 020

NAFARROA GARAIA
Arga Ibaia kalea, 12-14
behea, 31014 Iruña
948 221 130